

Ingeniaritza graduko 1. mailako ikasle berrien gurasoekin elkartzeko bilera.

2010/11/02

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Arrasateko Campusean, ikasturte hasieran ohikoa den bezala, ingeniari-tza graduko 1. mailako ikasle berrien gurasoekin elkartzeko bilera egin da.

Jon Altunak, Eskolako koordinatzaile akademikoak, esan zuen lehenengo harreman honen helburua ikasleek hasi duten etapa berri honetan biziko dituzten aldaketen inguruko informazio zabal bat ematea dela, hauek dira nabarmendu zituen alderdiak: autonomia gehiago, talde lana, parte hartzea, Europako hezkuntza esparrua...

